

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

ASPACEk Garuneko-paralisia eta antzeko alterazioentzako erreferentziako zentroa zabaldu du Lekarozeko ikastetxe zaharrean

Garuneko-paralisia dutenen zein beraien familia eta arlo horretako profesionalen topaketak eta formazioa bultzatzea du helburu instalazio berriak


Ostirala, 2018.eko otsailak 16

Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparra eta Hezkuntza kontseilari Maria Solana ASPACEk gaur Lekarozen zabaldu duen Garuneko-paralisia eta antzeko alterazioentzako erreferentziako zentroaren irikiera ekitaldian izan dira gaur. Bertan gainera aterpetxe turistikoa eta hezkuntza zentroaren zabaltze ekitaldia ere burutu da.

Lekarozeko ikastetxe zaharra, Nasuvinsak gizarte ekimenetarako berreskuratu eta moldatutako eraikinak, Garuneko-paralisia eta antzeko

alterazioentzako erreferentziako zentro, turismorako aterpetxe zein hezkuntza zentro bilakatu da gaurtik aurrera. Erreferentziako zentro honen zabaltzearekin, ASPACEk garuneko-paralisia dutenen zein beraien familien bizi kalitatea hobetzeko beste aurrerapuso bat eman du. “Zentroak garuneko-paralisia duten pertsonak zein beraien familiak bizi kalitatea hobetzeko lanean diharduten profesional eta elkarteetako arduradun eta lan-taldeak hartuko ditu”, azaldu du Miguel Laparra Eskubide Sozialetako lehendakariordeak. Laparrak gainera ASPACEk emandako pausoak nabarmendu ditu, “pertsona hauen beharrei erantzuna emateko zerbitzuak eta programak lantzen dituzte”.

Hezkuntza kontseilari Maria Solanak gogoratu du Hezkuntza departamentua 2016tik ari dela ASPACERekin elkarlanean Lekarozen, English Week ekimenaren parte bat han egiten baita harrezkero. “Balorazioa bikaina da, bai ingurua, bai ASPACEko langileek egin diguten arreta aparta baita”, adierazi du Solanak. Horregatik, Eleaniztasuna eta



Irakaskuntza Artistikoen Zerbitzuak zentro horren alde egin du hizkuntza-programa bertan eskaintzeko eta dagoeneko erreserbak egin dago 10 astetarako, irailaren 17tik azaroaren 23ra. Era berean, iragarri du Departamentuak beste formazio saio bat aurreikusi duela bertan “astebeteko seminarioa Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleak prestatzeko B2 edo C1 hizkuntza akreditazioa eskuratzeko Hizkuntza Eskolan”.

Nafarroako ASPACEk 1971ean ekin zion garuneko-paralisia eta antzerako alterazioak dituzten pertsonen bizi kalitatea hobetzeko itinerario bat lantzeari, hartara adin eta bakoitzaren beharren arabera programa eta zerbitzu ezberdinak eskaintzen ditu. Bide horren barruan sortu da Garuneko-paralisia zein antzerako alterazioak dituztenentzako erreferentziatzeko zentroa. Bertan hainbat ekintza burutuko dira: moldatutako kirola, autodeterminazioa, parte hartze aktiboa, ikastaroak, zein landa eremuan ekintzak eta, besteak beste, hezkuntza ikastaroak. Gainera, garuneko-paralisia dutenen familientzako zehin elkarreterako profesionalentzako ere ekintzak eta jardunaldiak antolatuko dituzte. Hain zuzen ere, gaurko irekiera ekitaldia “Garuneko-paralisia dutenentzako elikagaien prozesua” jardunaldiaren baitan egin da, bertan erkidego ezberdinetatik hurbildutako kideak ari dira parte hartzen.

Aterpetxe turistikoa

Nafarroako ASPACEk 2003an hartu zuen Baztango Gazteen Aterpetxearen gestioa eramatearen ardura. Bertan 20 kidek lan egiten dute, ia %90a ezgaitasunen bat duten bailarako kideak dira. Aterpetxeak dituen eremu ezberdinetan 130 kide hartzeko kapazitatea du. Eraikin osoa pertsona ezgaituek erabili dezaten moldatuta dago.